

**Aritz Gorrotxategi**

## **MADEIRA A PINOCHO**

Inadvertidamente, empezou a percibi-la presenza dunha muller. Ao principio, de xeito escuro, agochada baixo un xersei de cor verde; logo, máis diáfano, como unha ollada que se espeta. Vía a misteriosa dona, mentras el traballaba, nas puntas dos pés dende o outro lado do valo protector, coas mans apoiadas na súa beira. Ninguén a coñecía, pero pasaba a cotío a carón do valo, e observábao con moito disimulo, coma si se interesase polo desenrolo da obra. Callado, emporiso, opinaba o contrario, parecíalle que aquela muller era unha estraña e perigosa espía. Cando as súas olladas se cruzaban casualmente, notaba que se lle bloqueaba o sentido, e o home sentía algo especial, pero non podía discernir se era medo ou amor. Unha noite, viuna no pub "Emotive", ó outro lado da punta donde se sentaban eles, soa, fumándose un pito. Os amigos sairon a bailar, como adoito, e el ficou sentado, gorentando un whisky. Aquela presenza verde no traballo empezou a tornárselle abafante. Pero era un acoro diferente, coma si fora a afogarse de non respirar o misterio que agochaba tralo xersei verde, coma se necesitara inevitablemente aquela presenza. Naquel intre, sonou a cantiga My Man. A muller cantou a letra ollando ó home e, pouco a pouco, alonxándose da barra, foi achegándose á mesa onde se atopaba Callado, co pito e copa na man. Ao home pareceulle que estaban os dous sós no local, el e a presenza carnal do xersei verde. Sentouse á seu carón e estiveron calados durante unhas minutos. O home comezou a sentirse inqueda e déulle por dar voltas a súa copa. O interior dicíalle que debía facer algo, "algo, pero axiña". Aquel silencio era especial, ateigado de significados segredos. De súpeto, o home convidou a bailar á dama. Mergulláronse no medio da pista, hipnotizados por Billie Holiday que cantaba Loverman, enguedellados como se foran parella dende facía moito tempo. Os amigos contemplaron estrañados os pasos de baile dos novos amantes. Desenvolvíanse moi ben baixo os focos, coma se fosen actores que, saídos da secuencia dunha película, se convertisen en donos da pista. Logo viñeron Blue Moon y Only Have Eyes For You. Aos dez minutos non había vestixio da parella.

O home mirou pola xaneliña do coche. A lúa antollóuselle moi grande naquel intre. Non sabía porqué, mais unha forza descoñecida empuxábao cara adiante, en dirección a aquela muller. Por un instante, coidou que se trataba dalguén do pasado. Pero era imposible, dabondo irracional. A dona suxeitaba o volante namentres o home analizaba os pormenores da súa face. Non non podía lembrar aquela cara...., e, sen embargo, ¿porqué sentía aquela caste de proído no peito? ¿Amor ou medo? Semellaba condeado a vivir na apertada corda que cadraban aqueles dous sentimentos dende que aparecera na praia, perdido na amnesia. Entón posou os seus ollos nos beizos da muller.

¿Parecíanlle témeros? De ningún xeito, eran apetecibles co seu toque de vermello carmín. O automóvil detívose diante do semáforo e a dama virou a cabeza cara o home. Demorou unha ollada vagorosa na face do home, coma se quixera lerlle o tremor das súas santiñas; "pero eso é imposible", pensou o home, pois el non tiña interior. De contado, fundíronse nun bico. O semáforo púxose verde e o coche partiu a toda velocidade.

**Egurra Pinotxori**

Oharkabeen emakume baten presentzia nabaritzen hasi zen. Lausoa hasieran, kolore berdeko jertse baten babesean ezkutatua; sendoagoa gero, iltzatzen den begirada baten parekoa. Bera lanean ari zela ikusten zuen dama misteriotsua, babes-hesiaren beste

aldean hanka puntetan, eskuak hesiaren ertzean kokaturik. Inork ez zuen ezagutzen, baina egunero igarotzen zen hesiaren paretik, eta berari so egoten zen disimulu handiz, obraren nondik norakoa interesatuko balitzaio bezala. Calladori, ordea, kontrakoa iruditzen zitzaion, emakume hura zelatari arrotz arriskutsu bat zela. Euren begirada modu xaloan gurutzatzen zelarik, sena blokeatzen zitzaiola sumatzen zuen, eta zerbait berezia sentitzen zuen gizonak, baina ezin zuen beldurra ala maitasuna zenentz zehaztu.

Gau batean, "Emotive" pubean ikusi zuen, eurak esertzen ziren erpinaren beste aldean, bakarrik, zigarro bat erretzen. Lagunak dantzatzera irten ziren, ohi bezala, eta bera eserita geratu zen, whiskyaren zaporea dastatuz. Lantokiko presentzia berde hura itogarri bihurtzen hasi zitzaion. Itogarritasun hura, ordea, bestelakoa zen, jertse berdearen atzean ezkutatzen zen misterioa arnastu ezean itoko balitz bezala, presentziaren beharra nahitaezkoa bailuen. Une hartan, My Man abestia ipini zuten. Emakumeak kantaren letra abestu zuen gizonari begira, eta pixkanaka, barratik aldendu eta Callado zegoen mahaira hurbilduz joan zen, zigarroa eta kopa eskuan zituela. Lokalean biak bakarrik zeudela iruditu zitzaion gizonari, bera eta jertse orlegiko presentzia haragizkoa. Bere alboan eseri zen, eta isilik egon ziren biak minutu batzuk. Gizona urduri sentitzen hasi zen eta edalontziari bueltak emateari ekin zion. Zerbait egin behar zuela esaten zion barrenak, "zerbait, baina azkar!". Isiltasun hura berezia zen, esanahi ezkutuz betea. Bat-batean, gizonak dantzatzeko gonbita luzatu zion damari. Loverman abestia kantatzen ari zen Billie Holidayren hipnosipean murgildu ziren biak pistaren erdian korapilaturik, aspaldiko bikotea bailiran. Lagunek harriturik begiratu zituzten maitale berrien dantza-pausoak. Zinez ongi moldatzen ziren fokoen azpian, film bateko sekuentziatik irten eta pistaren jabe bihurtzen diren aktoreen moduan. Segidan, Blue Moon eta I Only Have Eyes For You etorri ziren. Handik hamar minutura, ez zegoen bikotearen arrastorik.

Gizonak autoaren leihotik begiratu zuen. Ilargia oso handia iruditu zitzaion une hartan. Ez zekien zergatik, baina indar ezezagun batek bultzatzen zuen aurrera, emakumearengana. Une batez, iraganeko norbait zelakoan egon zen. Ezinezkoa zen, ordea, irrazionaleria. Damak bolanteari eusten zion, eta gizonak haren aurpegiko ezaugarriak aztertzen zituen. Ez, ezin zuen begitarte hura oroitu... zergatik sentitzen zuen, alabaina, azkura moduko hura bularrean? Maitasuna ala beldurra? Bi sentipen haiek osatzen zuten soka estuan bizitzera kondenatuta zirudien hondartzan agertu zenetik, amnesian galdu zenetik. Emakumearen ezpainetan pausatu zituen begiak orduan. Beldurgarriak iruditzen zitzaizkion? Ez, inolaz ere, apetagarriak ziren karmin gorriaren ukituarekin. Semaforoaren aurrean geratu zen autoa eta damak burua jiratu zuen gizonarengana. Begirada pausatu bat luzatu zuen gizonaren aurpegian, begi-ninien dardara irakurri nahiko balio bezala; "baina hori ezinezkoa da", pentsatu zuen gizonak, berak ez baitzuen barrenik. Musu batean hondoratu ziren segidan. Semaforoa berde jarri, eta aurrera jo zuen autoak abiada bizian.